

## EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUAREN GAZTE-LABELA



**GazteLabel-a** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren proiektu pilotu bat da, *"gazteen perspektiba batetik, gazteria politika publikoen kontrastea egiteko eta kalifikatzeko sistema bat garatzea"* xede duena.

- \*GAZTE-LABELAREN HELBURUAK
- \*KONTRASTATU BEHARREKO PROIEKTUEN IRIZPIDEAK
- \*KONTRASTERAKO TALDE PILOTUA
- \*KONTRASTE PROZESUA
- \*GAZTE-LABELAREN KONTRASTE FAKTOREAK
- \*DISEINUA
- \*NOLA EGIN KONTRASTEAK



## GAZTE-LABELAREN HELBURUAK

1/ Enplegu gaitan **gazteriaren politika publiko berriarako** oinarriak finkatzea, gazteak eskubide osoko subjektutzat hartuko dituztenak.

- Gazteen eta administrazioen arteko **elkarrizketa estrategia berritzailea**.
- Administrazio ezberdinen artean **informazioa hedatzea eta elkar trukitzea**.

2/ **Gazteriako politika publikoetan garatzen diren praktika egokiak aitortzea**.

3/ **Gazteen egoera hobetzea** eta gazteek kalitatezko lana izango duten gizartea sustatzea.

## KONTRASTATU BEHARREKO PROIEKTUEN IRIZPIDEAK:

1// SENDOTUTAKO PROIEKTUAK: gutxienez ziklo oso batez egongo dira indarrean.

2// PROIEKTU PILOTUAK EDO SENDOTUTA EZ DAUDENAK: GazteLabeleko kontraste prozesua burutuko da, baina behin-behineko GazteLabela eta informazioa dagoen faktoreei buruzko gomendioak soilik emango dira. Proiektuak indarrean dagoen ziklo osoa betetzen duen unean eta gainerako faktoreak ebalua daitezkeenean, behin betiko GazteLabela emango da.

\*Edozein kasutan, proiektuek epeak eta aurrekontuak esleituta izango dituzte, exekuzio konpromisoa zein jarraipen konpromisoa bermatzeko.

3// Ezarritako helburua lortu arteko jarraipen bokazioa duten proiektuak.

4// Titulartasun publikoa edo exekuziorako diru publikoa duten proiektuak.

5// Ardura duen entitateak borondatez aurkezturiko proiektuak (Gazteria eta sektoreko departamentuarekin batera).

## KONTRASTERAKO TALDE PILOTUA

Taldean gutxienez kontrasterako BOST eragile:

- BI GAZTE (<30)
- ADMINISTRAZIO EZBERDINETAKO BI KARGU TEKNIKO EDO POLITIKO (inoiz ez dira izango kontrastatu beharreko proiektuaren ardura duen Administrazioak).
- EGK-ko PRESIDENTEA edo izendatutako ordezkoa.
- Kontraste prozesuan TEKNIKARI batek ere parte hartuko du (hitzarekin baina botorik gabe, bera arduratuko da koordinazioaz, azalpenak emateaz, informazioa jasotzeaz, informazio gehigarria lortzeaz...): Enplegu eta Etxebizitza arloa.

## KONTRASTE ERAGILEAK:

1/ **Prestakuntza berezia** jasoko dute kontrasteak egiteko gaiari buruz, GazteLabeleko ereduaren arabera. Prestakuntza hori **EGK-ko ekipo teknikoak emango du, Euskaliten laguntza eta aholkularitzarekin**. Bertan kontraste metodologiaren erabileran entsegu praktikoak egingo dira.

2/ Konpromisoa hartuko dute kontraste prozesua egiteko ezarritako epeen barruan.

3/ Nor izan daitekeen kontraste eragilea:

- Administrazioko **kargu tekniko eta politikoak** (Gazteria departamentuko kideak edo, gehienez ere, orain dela 5 urte arteko kide ohiak).
- EGK-ko **“gazteria eta enplegua”** taldeko kideak.
- EGK-ko **Batzorde Iraunkorreko edo Batzar Nagusiko** kideak.
- **Gazteak** maila pertsonalean.
- **Bazkidetutako gazteak** (EGKtik kanpoko entitateetan).

4/ **Euskara eta Gaztelaniaren ezagutzak** (kontrasterako eragile bakoitzak eta Administrazio bakoitzak nahi duen hizkuntzan emango du informazioa eta komunikatuko da, publiko egiten diren dokumentuak soilik itzuliko dira bi hizkuntzetara).

**ADMINISTRAZIOAREN KONTRASTE ERAGILEAK:** parte hartzeko pizgarririk handiena prozesua barrutik eta **GazteLabeleko kontrasterako faktoreak ezagutzea** izango da, **Administrazioaren jardueran aplikatu ahal izateko, eta baita gazteriaren inguruko politika publikoei buruz ikastea ere** (hiru gazterekin batuko dira eztabaida egiteko).

**EGKrekin hitzarmenak sinatzen dituzten administrazioek lankidetzaren honen berri aipatu ahal izango dute** hitzarmenetan, eta lankidetzaren formula hau ez dutenek era boluntarioan egin dezakete.

Denborarekin, neurri bat kontrastepean jarri ahal izateko, administrazioek aurrez beste kontraste prozesuren batean parte hartu dutela ziurtatu beharko dute. Proiektu pilotuan hori ez da posible izango.

**KONTRASTERAKO ERAGILE GAZTEAK:** haien parte hartzea borondatezkoa izango da eta ez du konpentsazio ekonomikorik izango, baina gastuak (garraioa eta abar) EGKren edo bere proiektua edo programa ebaluatzerantz aurkezten duen Administrazioaren kontura izango dira. Egon litezkeen pizgarriak: UEUko ikastaro bat, bertako edo bidezko merkataritzako produktuen saski bat eta abar (eskura eduki daitekeen beste baliabide mota bat).



## **ZER ESKATUKO DIT KONTRASTE ERAGILE IZATEAK?**

1/ **PRESTAKUNTZA:** kontraste eragile guztiek 8-16 ordu bitarteko prestakuntza jasotzera joan beharko dute (egun bat edo bi).

2/ **PROZESUA AMAITZEKO KONPROMISOA:** prestakuntza jasotzeak ez ditu eragileak derrigortzen prozesuetan parte hartzera, kontrasterako taldeak eskaeraren arabera osatuko baitira eta horietan parte hartzea borondatezkoa izango da. Prozesuan parte hartzeko konpromisoa hartzen bada, gutxienez ondorengo faseak bete behar dira:

- jasotako informazioa aztertzea,
- banakako kontrastea egitea (kontrasterako gida bat egongo da),
- batera egingo den kontrasterako bileran parte hartzea,
- neurria aurkezten duen entitatearekin kontrasterako bileran parte hartzea,
- azken bileran parte hartzea.


## **PROIEKTU PILOTUAREN AURREIKUSPENA**

-2015: proiektu pilotua garatuko da eta KONTRASTE EREDUAREN arabera ebaluatuko da hobetzeko xedez. Horretarako, neurri batzuk kontrastatuko dira hasieran.

Gaur egun, dagoeneko badaude Eusko Jaurlaritzaren enplegu gaztearen politika publikoen kontrasterako eskaera batzuk lehenengo prozesuak egin ahal izateko.

-2016: GazteLabela publiko egingo da eskala handiagoan eta proposamen berriak jasoko dira.

## GAZTE-LABEL KONTRASTE PROZESUA



### 1. // ESKAERA – ARDURADUNA-

Politika publiko edo proiektu baten kontrasterako eskaera Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan (EGK) egin behar du politika edo proiektu horren definizio, garapen eta inplementazioaren ardura kargu bat duen pertsonak edo taldeak (hemendik aurrera ARDURADUNA), edo bestela, izendatutako ordezkioak, edozein kasutan, neurriari buruz behar den informazio osoaren berri eta sarbidea izango duena.

Edozein kasutan, eremu horretan neurrien eta proiektuen aurkezpena egin beharko dute batera ardura duen departamentuak eta Administrazio arduradunaren gazteria departamentuak edo sailak.

### 2. // EGOKITASUNA – TEKNIKARIA-

ARDURADUNAK emandako informazioarekin eta jaso daitekeen besteren batekin, GazteLabelaren kudeaketa teknikoaren arduradunak (hemendik aurrera TEKNIKARIA) kontrastera aurkeztu den proiektuak edo politika publikoak kontrastea egiteko beharrezkoak diren eskakizunak betetzen dituela egiaztatuko du (ikus IRIZPIDEAK atala). Baldintza horiek beteko ez balira, ezingo litzateke jarraitu prozesuarekin, geroago egin daitezkeen eskakizunen kalterik gabe, neurria kontrastatzeko aukera ematen duten aldaketak egin badira.

### **3. // PROTOKOLOA**

Kontrastatua izateko proiektuaren edo politika publikoaren egokitasuna baieztatu ondoren kontrasterako PROTOKOLOA ezarriko da eskura dauden baliabideetan oinarrituta (denbora, lan karga, ekonomia...). Ondoren zehazten diren alderdiak ezarriko dira gutxienez:

- Egutegia: kontraste prozesuaren urrats bakoitza betetzeko epeen muga.
- Kontrasterako ekipoa: ezarritako epeak betetzeko konpromisoa hartuko duten KONTRASTE ERAGILEAK.

### **4. TXOSTENA ETA AUTOKONTRASTEAREN – ARDURADUNA-**

Arduradunak txosten estandarizatua beteko du proiektuari edo politika publikoari buruz behar den informazioarekin eta ondoren ERAGILE EBALUATZAILEEI emango zaie. Gainera, neurriaren autokontrastea ere egin beharko du, eragile ebaluatzaileekin partekatuko ez dena elkarrekin aztertu arte.

### **5. BANAKAKO KONTRASTEAREN – KONTRASTE ERAGILEAREN-**

Kontraste ekipoko kide bakoitzak neurriaren banakako kontrastea egingo du metodologia estandarizatuaren arabera. Horretarako aurrez ezarritako kontrasterako FAKTOREekin bat datorren prestakuntza jasoko dute.

### **5.B // INFORMAZIO GEHIGARRIA –TEKNIKARIA-**

Kontraste taldeko kideren batek neurriari buruz informazio gehiago beharko balu, TEKNIKARIARI eskatuko dio, eta horrek aldiz ARDURADUNARI. Dagozkien azalpenak jasota, kontraste talde osoari emango zaio informazioa, banakako kontraste guztietan kontuan hartu ahal izateko informazio hori.

### **6. // KONTRASTE BATERATUA – TEKNIKARIA-**

Banakako kontraste guztiak eta ARDURADUNAREN autokontrastea jaso ondoren, hala badagokio, TEKNIKARIAK guztien bilduma egingo du, adostasunak eta desadostasunak identifikatuz. Halaber, eta ahal den neurrian, kontraste proposamen bateratua egingo du ondoren KONTRASTE ERAGILEEK azter dezaten.

### **7. // KONTRASTEAREN ETA HOBETUNTZARAKO PROPOSAMEN BATERATUAK: BEHIN-BEHINEKO GAZTELABELA – KONTRASTE ERAGILEAREN-**

KONTRASTE taldeko kide guztiek aurrez aurreko bilera bat egingo dute, eta bertan baloratuko dituzte banakako kontrasteen arteko ezberdintasunak eta kontraste bateratuaren egokitasuna. Halaber, proiektu edo politika publikoaren aldaketa eta hobekuntzarako proposamenak egingo dituzte, beharrezkoa bada. Dokumentu bateratua eta GazteLabeleko proposamena neurri kontrastatuaren arduradunari helaraziko zaizkie hurrengo bilera egin baino lehen, aztertzeko, zalantzak planteatzeko eta kontraste bileran hobekuntza proposamenak egiteko aukera izan dezaten.

## **8. // KONTRASTE – KONTRASTE ERAGILEAK ETA ARDURADUNAK-**

KONTRASTE taldeak edo horren parte txiki batek ARDURADUNAREkin egingo du bilera kontrastearen ondorioen berri emateko eta hobekuntza proposamenak azaltzeko, azterketarako informazioa bidali baino lehen.

Bilera horretan esleitutako GazteLabelaren eta hobekuntza aukeren berri emango zaio, egindako proposamenak betez gero, eta baita lorturiko GazteLabela ondoko urteetan berresteko bete beharreko baldintzen berri ere.

ARDURADUNAK erabaki beharko du GazteLabela onartzen duen behin betikoz edo behin-behinekoz ezartzen duen, hobekuntza neurriak ezarri ahal izateko eta ondoren neurria berriro kontrastatu ahal izateko.

## **9. // ALDAKETA – ARDURADUNA-**

Txosten bateratua jaso ondoren, proiektu edo politika publikoaren talde ARDURADUNAK gogoeta egin beharko du abian jarri beharreko aldaketaren inguruan. Aldaketaren bat eginez gero, betiere protokoloak ezarritako epearen barruan, aldaketa horiek sartu ahal izango dira KONTRASTE ETA PROPOSAMEN BATERATUAK-en (7. urratsa). Horren ondorioz, beharrezkoa balitz, GazteLabela aldatuko litzateke eta behin betikotzat ezarriko litzateke.

## **10. // BEHIN BETIKO LABELA EMATEA + URTEROKO BERRESPENA**

GazteLabela emango da. Etiketaren baloratuko da kontraste FAKTOREetan ezarritako gutxieneko baldintzen betetze-maila, eta baita proiektu edo politika publikoaren puntu indartsuak ere.

GazteLabela urtero balioztatu behar da eman zeneko ezaugarriak oinarri hartuta. Ezaugarri horietako baten bat gazteak kaltetzen dituen eran aldatu bada, GazteLabela kendu egingo da.

## **11. // ARGITALPENA ETA HEDAPENA**

Kontrastaturiko proiektu eta politika publikoak erregistro publiko batean jasoko dira. GazteLabelak emateko edo ukatzeko erabili diren irizpideak eta balorazioak kontsultatu ahal izango dira bertan, praktika egoki eta desegokien datu base bat ezarriz.

## **12. // EMAITZAK**

GazteLabel kontraste prozesua amaitu eta kontraste ezberdinak jaso ondoren, gizartean horiek oihartzuna izatea espero da. Horrela, gazteria politiketan praktika egokiak sustatzeko ekintza posibleak identifikatuko dira, GAZTELABEL SARIAK edo PRAKTIKA EGOKIEN TRUKEA adibidez, betiere, azken helburua izanik gazteek kalitatezko enpleguak, etxebizitza, prestakuntza eta abar eskuratu ahal izatea.





## GAZTE-LABELAREN KONTRASTE FAKTOREAK

**KONTRASTE EREDUA, zergatik horrelakoa?:** politika publiko guztia, bere diseinua eta jarraipena aztertzen ditu, GAZTERIA KOLEKTIBO DINAMIKOA DELAKO, eta politikek bere baldintzetara egokitzeko mekanismoak izan behar dituztelako.

**1/ EGOKITASUNA ETA EGOKITZAPENA:** Neurriak benetako behar bati erantzuten dio eta era zuzenean egiten du?

**2/ BALDINTZEN BERDINTASUNA:** Neurriak gazteen eskubideak sustatzen ditu eta diskriminatuak izan daitezkeen ekiditen du?

**3/ GIZARTEA ETA IRAUNKORTASUNA:** Neurria errespetuzkoa da ingurumenarekiko eta gizarte testuinguruaren barruan artikulatzen da?

**4/ EMAITZAK:** Neurriak lortzen ote du hobetzea bera abian jartzeko arrazoia izan zen behar egoera?

**5/ EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA:** Neurriak egokitzapen eta hobekuntza mekanismorik badu?

**6/ BESTE INDARGUNE BATZUK:** Neurria nabarmentzen da praktika egokiren batengatik bereziki?



## 1.FAKTOREA: EGOKITASUNA ETA EGOKITZAPENA

Neurriak benetako behar bati erantzuten dio eta era zuzenean egiten du?

► **1.1. ELEM.: AURRETIAZKO AZTERKETA.** Egoeraren aurretiazko azterketa bat dago, bertan datuak, egoerak eta dauden neurriak aztertzen dira, eta horren bidez antzematen da kuantitatiboki edota kualitatiboki konpondu nahi den arazoa.

► **1.2. ELEM. NEURRIA TESTUINGURUAN.** Neurria estrategia handiago baten barruan uztartzen da, eta neurri ezberdinen garapenak planteatutako helburua lortzen laguntzen du. Eta gainerako neurriak garatzen ari dira (edo aurrekontua eta garatzeko asmoa badago).

- Gazteriari arreta eskaintzeko plan integral bat dago, enplegu plan bat, ekintza plana edo beste era bateko markoa, atentzio orokorragoa duena.
- Marko orokor honetako neurriak aztertzen ari den neurria osatzen dute eta haiekin batera egoera hobetzen laguntzen dute.
- Marko orokorrak ez du uzten estali gabe bere garrantziagatik edo tamainarengatik erraz identifika daitekeen inolako beharrik, eta beraz, azterturiko neurriaren helburuari ez dio eragingo beste eremuren bateko ekintza faltak. *Adibidea: jabeei soilik zuzendutako neurriak dituen etxebizitza programa bat, eta alokairuari begira neurri bat ere ez duena.*

►► **1.3. ELEM. NEURRI BIDERATUA.** Neurriak publiko objektibo definitua dauka, eta, taldearen berezitasunez gain, eskusiboki edo nagusiki adin markoa definitzen du. Edozein kasutan, ziurtatu egiten du gazteek neurrian sarbidea izatea.

- Gazteek neurrian sarbidea dute, nagusiki edo berdintasunean, adinari mugak jarri dizkiotelako, kupoak erreserbatu direlako edo justifikatuta dagoen beste zioen batengatik.

► **1.4. ELEM. HELBURUA.** Neurriak helburu argia, esplizitua eta gazteriarekin edo haren talderen batekin lotura dauka. Halaber, neurriari forma emateko moduak helburua betetzen laguntzen du.

- Helburuak lotuta daude gazteriarekin edo gazteen kolektiboren batekin (emakume gazteak, etorkin gazteak, gizarte bazterkerian dauden gazteak...) eta haien egoera edo eskubide sozioekonomikoak hobetzea dute helburu. Helburua ez da, inolaz ere, haiek okertzea.
- Neurriaren helburuaren eta garapenaren arteko harremana zuzena da, eta koherentzia dago haien artean.

►► **1.5. ELEM. ASE EZ DAGOEN BEHARRA.** Neurria antzeman den behar batetik ondorioztatzen da, edo adierazita dagoen baina bete ez den interes kolektibo batetik, abian dauden beste neurri batzuekin asetzeko aukerarik ez duena (Administrazio berdinarean edo beste baten neurriak).

**1.5.1. ELEM. KOORDINAZIOA.** Antzeko neurriak edo helburu bera dutenak egonez gero, (Administrazio berean edo beste batean) haien artean koordinazioa dago eta ez dira teilakatzen kontzeptualki, ekonomikoki nahiz lurraldean.

►► **1.6. ELEM. PLAZA ESANGURATSUAK.** Neurriak plaza kopuru nahikoa eskaintzen du onura jaso dezaketen herritarrak kontuan hartuta.

*Adibidez: lehenengo enplegurako neurriak hamar plaza baino gehiago izatea bere lehenengo enplegua bilatzen dutenentzat.*

## 2. FAKTOREA: BALDINTZEN BERDINTASUNA

Neurriak gazteen eskubideak sustatzen ditu eta diskriminatuak izan daitezzen ekiditen du?

►► **2.1. ELEM. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA.** Neurria generoaren ikuspegitik ezartzen da, eta kasua balitz, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta sendotzen duten xedapenak sartzten ditu, egoeraren aurretiazko azterketan oinarrituta.

- Neurriak berdintasunezko baldintzak ezartzen ditu emakume eta gizonentzat, eta baldintzak zuzenean neurriaren baitan ez dauden kasuetan, berdintasun hori ziurtatu edo sustatuko duten klausulak ezartzen ditu.

*Adibidez: enpresako kontratuak egiten laguntzeko neurri baten kasuan, hautaketa enpresak berak egingo duen arren, neurriak irizpide batzuk ezarriko ditu presentzia txikiena duen generoko pertsonen lehentasuna izan dezaten esleipenean. Halaber, irizpideak ezarriko ditu soldaten gaian, ezberdintasun handiak antzemanaz gero generoaren arabera.*

- Genero alborapen handia dagoen sektoreetan, presentzia txikiena duen generoa sustatzeko neurriak ezartzen ditu.

*Adibidez: presentzia txikiena duen generoari mesede egiten dioten xedapenak ezartzen ditu hautaketaren unean berdinketa egoera ematen den kasuetan.*

► **2.2. ELEM. AUKEREN BERDINTASUNA.** Neurria gazteriaren barruko kolektibo berezi bati zuzenduta dago, desabantaila, ahultasun edo diskriminazio egoera berezian oinarrituta (generoa, jatorria, etnia, prestakuntza maila, dibertsitate funtzionala, bizilekua -landa ingurua, enplegu faltak pisu berezia duen zonaldea...- eta abar).

**2.2.1. ELEM. KONPENTSAZIOA.** Neurriak ez baditu desabantaila, ahultasun edo diskriminazio egoerak aurreikusten, badaude hori egiten duten neurri osagarriak.

►► **2.3. ELEM. BERDINTASUNA.** Neurriak gazteentzako lan baldintzen berdintasuna sustatzen du gizartearen gainerakoarekiko: kontratu mota, soldata, kotizazioa, lanaldia, pizgarriak eta abar.

**2.3.1. ELEM. EGONKORTASUNA.** Neurriak gazteentzako kontratazio salbuespen formulak edo beste formula batzuk erabiltzen baditu, onuradunen lan eskubideen murriztapenean oinarritzen direnak, neurriak berak aurreikusten ditu egonkortasun klausula batzuk pertsona horien ondorengo kontratazioa aurreikusten dutenak, baldintza berdintasunean eta hitzarmenen kolektiboen babespean.

►► **2.4. ELEM. BENETAKO BERDINTASUNA.** Neurriak mekanismoak aurreikusten ditu balizko onuradun guztiek sarbidea izan dezaten eskainitako plazetan baldintzen berdintasunean, prozesu ilunak saihestuz eta hautaketa prozesu neutroak, publikoak eta berdintasun irizpideetan oinarritutakoak sendotuz, eta genero, sexu orientazio, jatorri, etnia, erlijio edo beste arrazoi batzuegatiko diskriminazioak ekidinez.

- Informazioa argia, publikoa eta pertsona guztien eskura dago. Formatu ezberdinei eskainiko zaie arreta, informazio espektroa zabaltzeko. Onuradunak izan daitezkeenei komunikazio pertsonalizatua eskaintzen zaie.
- Hautaketa prozesua gardena da. Hautaketa irizpideak argiak eta koherenteak dira.
- Presentzia txikiena duten kolektiboek edo adin tarteei kupoak erreserbatzen zaizkie.

### 3. FAKTOREA: GIZARTEA ETA IRAUNKORTASUNA

Neurria errespetuzkoa da ingurumenarekiko eta gizarte testuinguruaren barruan artikulatzen da?

► **3.1. ELEM. PARTE HARTZEA.** Bai neurriaren diseinuan, bai definizioan, onuradunen kolektiboaren ordezkarien edo kideen parte hartzea edota kontrastea izan dugu. Parte hartze hori informatua eta kontsekuentea izan da, kolektiboak egindako proposamenak eta iradokizunak uztartuz, kontsentsurik handiena zutenak bereziki.

►► **3.2. ELEM. BIDERAGARRITASUNA.** Neurriak baliabide ekonomiko eta tekniko nahikoak ditu esleituta eta exekuzio epe garbiak ezarri ditu.

► **3.3. ELEM. IRAUNKORTASUN POLITIKOA.** Neurria kontrastatu da, eta kasua balitz, oposizioko talde politikoekin adostu da, beraz, ziurtatuta dauka jarraipena denboran, gobernu aldaketan baitan egon gabe.

►► **3.4. ELEM. ZEHARKAKOTASUNA.** Neurria koordinatu da abian jartzeko ardura duen Administrazio barruko departamentu ezberdinen artean, Gazteria eta Enplegua edo Ekonomia Sustapena departamentuei arreta berezia eskainiz. Neurria garatu da, diseinatu da eta planifikatu da arlo edo departamentu ezberdinekin lankidetzan. Era horretan, bakoitzak bere ezagutza bereziak ekarri ditu, eta baita baliabideak ere era osagarrian.

►► **3.5. ELEM. GIZARTE IRAUNKORTASUNA.** Neurriak mekanismoak ezartzen ditu gertueneko gizartearen gainerakoan edo langileen gainean izan ditzakeen inpaktu negatiboak ekiditeko.

*Adibidez: Kontratazioan langileen lege-ordezkarien oniritzia izatea derrigorrezkotzat jotzen du, enpresa bakoitzerako gehienezko beka eta praktika kopurua ezartzen du, beka eta praktikak ikuskatzen ditu enpleguak ordezkari ez ditzaten, edo lan gatazkak dauden enpresetan debekatu egiten du salbuespen formula horiek erabiltzea kontratazioan.*

► **3.6. ELEM. IRAUNKORTASUN GLOBALA.** Neurriak tokiko enpresa edota entitateekin lan egitea lehenesten du, hedadura txikikoak eta mekanismoak dituztenak gizartean eta ingurumenean inpaktu negatiboak saihesteko maila lokalean eta globalean.

*Adibidez: Informazioa eskura daitekeen neurrian, saihestu egingo da lan egitea beste herrialde batzuetan gizarte edo ingurumen gatazka irekiak dituzten enpresa edo entitateekin. Laguntza ekonomikoak dituzten neurrietan saihestu egingo da lan egitea etekin handiak dituzten enpresa edo entitate handiekin, kontratazioaz era autonomoan arduratu daitezkeenak, eta edozein kasutan, entitate horiei ahalegin ekonomikoa egitea eskatzen zaie.*

## 4. FAKTOREA: EMAITZAK

Neurriak lortzen ote du hobetzea bera abian jartzeko arrazoia izan zen behar egoera?

▶▶ **4.1. ELEM. EBALUAZIO ADIERAZLEAK.** Neurriak bere helburuarekin zerikusia duten ebaluazio adierazleak ditu, programaren emaitzak argi eta zabal neurtzen dituztenak eta hobekuntza posibleak ebaluatzea ahalbidetzen dutenak. Edozein kasutan, datu bereiziak ditu adinka, generoka eta beste faktore batzuen arabera, bai eta adierazle kualitatiboak ere.

▶▶ **4.2. ELEM. BEREHALAKO EMAITZAK.** Ezarritako helburu kuantitatiboak betetzen ditu neurriak:

- Eskainitako lanpostuak bete egin dira, horietara egokitutako profilekin.
- Onuradunek proiektua hasieratik bukaerara arte garatu dute, edo, kasua balitz, neurriari edo proiektuari esker lortu duten eskaintza hobe batengatik utzi dute. *Adibidez: Ez litzateke baliagarria izango baldin eta, adibidez, pertsona batek prestakuntza utzi behar badu bizirauteko behar dituen sarrerak ez dituelako.*
- Bajak egon diren kasuetan leku hutsak bete ahal izan dira.
- Eskatutako profilak bat zetozen aurkeztutako profilekin.

▶▶ **4.2.1. ELEM. BEREHALAKO EMAITZETAN BERDINTASUNA.** Emaitzen datuak sexu, jatorri, adin eta garrantzitsuak izan daitezkeen beste faktore batzuen arabera bereiziak eskaintzen dira:

- Emakumezko eta gizonezkoen parte hartzea parekoa da, salbu eta talde batari ala besteari zuzendutako proiektuetan.
- Parte hartze baldintzak berdintasunezkoak dira (soldata, lanaldia, ordutegiak, sarbidea, egonaldiaren iraupena, parte hartzeke egin behar diren gastuak...) eta ez baldin badira, neurriak ezberdintasunaren eragina ezeztatzen duten konpentsazioak ezartzen ditu.

▶ **4.3. ELEM. EMAITZAK EPE ERTAINERA.** Parte hartzaileen lan ibilbidearen jarraipena egiten da (beren onespenearekin), neurriaren ondorengo laneratzea eta honen kalitatea ezagutzeko.

- Parte hartzaileen laneratzea berehalakoa da edo bestela epe laburrekoa (hilabete bat eta lauren artekoa), proiektuan edo neurrian parte hartu ondoren.
- Ondorengo laneratzea kalitatezkoa da: kontratazio estandarren arabera da, ez du formula berezirik erabiltzen, laneratze egokitua da, egonkorra, eta abar.
- Neurrian parte hartu duten enpresa edo entitateetan egiten da nagusiki ondorengo laneratzea.
- Ondorengo laneratzerik ematen ez baldin bada, neurrian parte hartu dutenek beste neurri publiko batzuetara jotzen dute, laneratze ibilbide pertsonalizatu baten barnean.

▶ **4.3.1. ELEM. BERDINTASUNA EMAITZETAN EPE ERTAINERA.** Emaitzen datuak sexu, jatorri, adin eta garrantzitsuak izan daitezkeen beste faktore batzuen arabera bereiziak eskaintzen dira:

- Batez beste, ez dago ezberdintasun handirik ondorengo laneratzeari dagokionez emakumezko eta gizonezkoen artean, jatorri edo etnia ezberdineko pertsonen artean, eta abar. Bereziki, kontratu mota, soldata, lanaldi, ordutegi, kualifikazioari egokitutako lanpostu eta abarri dagokionez.
- Neurrian parte hartu duten pertsonen ondorengo laneratzean gertatzen den soldata aldea batez bestekoaren azpitik dago.
- Parte hartzaileen kontratu baldintzak beren laneratzeari dagokionez kalitate hobekoak dira beren adin taldeak dituenak baino.
- Neurrian parte hartu dutenek lanpostu egokituagoa dute (nahitaezko gainkualifikazio txikiagoa) beren adin taldekoek dutena baino.

► **4.4. ELEM. EMAITZA ESTRATEGIKOAK ETA BENETAKO ERAGINA.** Neurria garatu ondoren, gazteriari buruzko adierazle orokorretan eragina duela ikusten da, eta horrek erakusten du neurriaren diseinuaren unean justifikatuta zegoela neurria abian jartzea. Hobekuntza hori neurria abian jarri izanarekin lotu daiteke.

- Gazteen arteko langabezia tasa jaitsi egiten da.
- Lan arloan gazteriarekiko ezegonkortasun jokabideen erabilera gutxitu egiten da.
- Gazteen emantzipazioa areagotu egiten da.
- Gazteen artean pobreziaren eragina txikitu egiten da.

► **4.4.1. ELEM. BERDINTASUNA EMAITZA ESTRATEGIKOETAN.** Neurriaren eragina berdintasunez nabari da eta ezberdintasun adierazleak gutxitu egiten dira.

- Emakumezko eta gizonezkoen artean, bertako gazteen eta immigranteak direnen artean, eta gazteen eta langileen orokortasunaren artean dagoen soldata aldea txikitu egiten da, betiere gazteriaren orokortasunaren lan kalitatearen okertzeari ez dagozkion arrazoientatik.
- Kontratazio motei dagokienez emakume eta gizonen artean dauden nahi gabeko ezberdintasunak gutxitu egiten dira. behin betikotasuna, lanaldi partziala, ordutegiak, eta abar.

## 5. FAKTOREA: EBALUAZIOA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Neurriak egokitzapen eta hobekuntza mekanismorik badu?

▶▶ **5.1. ELEM. EMAITZEN ARGITALPENA ETA KONTRASTEA.** Neurriarekin lortutako emaitzak modu ulergarrian eta eskuragarrian egiten dira publiko, programa amaitzen denetik epe laburrean (hiru hilabete). Epe ertaineko eta luzeko emaitzen kasuan urte anitzeko argitalpenak egiten dira.

▶ **5.2. ELEM. PARTE HARTZAILEEN/INPLIKATUTAKO PERTSONEN EBALUAZIOA.** Neurrietan parte hartzen dutenekin ebaluazioari eta hobekuntza proposamenei buruzko prozesua egiten da. Balorazio horietan gutxienez ondokoak neurtzen dira:

- Programan parte hartu dutenean, pertsona horiek izan duten asebetetze maila eta neurriaren egokitasun eta egokitzapenari buruz duten balorazioa.
- Programan parte hartzeko motibazioaren eta lortutako emaitzen arteko aldea.
- Neurriaren balorazioa politika publikoen barnean eta lanaren eta gizartearen testuinguruan.
- Hobekuntza proposamenak esperientzia pertsonaletik eta talde esperientziatik.

▶ **5.3. ELEM. EBALUAZIO INSTITUZIONALA.** Neurriaren administrazio arduraduna emaitzen eta neurriaren ibilbidearen ebaluazioa egiten du eta, era berean, publikoki eskuragarri jartzen du. Ebaluazio horretan jasotzen dira, gutxienez, datu ofizialak, bai eta parte hartzaileen ebaluazioak eta beste talde, entitate edo eragindako pertsonenak ere. Era berean, neurriaren onuren, eraginaren eta eraginkortasunaren ebaluazioa egingo da.

▶ **5.4. ELEM. ALDAKETA. NEURRIAREN MALGUTASUNA.** Ebaluazioa egin ondoren eta inplikaturako pertsona eta entitateekin (onuradunak, eragindakoak, bestelako administrazioak, enpresak eta abar) kontsulta egin eta gero, neurriak aldaketak jasotzen ditu hurrengo deialdietan, eta aldaketa horiek helburuak lortzeko egokiak dira.

- Neurria egokitu egiten da talde onuradunaren baldintza sozioekonomiko berrietara.
- Neurria egokitu egiten da bertan parte hartu duten pertsonen proposamenez, bere aplikagarritasuna, eraginkortasuna edo emaitzak hobetzeko xedearekin.

## 6. FAKTOREA: BESTE INDARGUNE BATZUK

Neurria nabarmentzen da praktika egokiren batengatik bereziki? Kontrastatutako neurri eta proiektuek gutxienez indargune bat izan behar dute.

► **PROIEKTU BESTERENGARRIA.** Neurria arrakastaz aplika daiteke testuinguru edo eskala ezberdinetan, eta, beraz, biderkatu egin daiteke eta gazteriaren baldintzen hobekuntzan neurri handiagoan lagun dezake. Hori izan liteke gazteriaren artean eta ehun sozio-ekonomikoan orokortua dagoen egoera bati eragiten diolako, sinplea eta kostu txikikoa delako, eta abar.

► **PROIEKTU ERALDATZAILEA.** Neurriak berariazko borondatea du gizartean eragiteko eta aldaketak sortzeko, gazteen bizi baldintzak eta horietan eragiten duten testuinguruko beste faktore batzuk nola edo hala hobe daitezen.

► **PROIEKTU MALGUA.** Neurriak bere aplikazioan zehar bilakaera jasateko gaitasuna izan du, egoera, inguru edo onuradunen beharretara egokitzeko, betiere aldaketa horiek helburua egokiago lortzen lagundu baldin badute.

Oharra: helburua aldatzen bada, neurri berri edo ezberdintzat hartuko da, hasierako neurria ez zela egokia edo gaizki planteatuta zegoela pentsatu behar baita.

► **PROIEKTU PROGRESIBOA.** Neurriak ibilbide progresiboa ezartzen du laguntzen kopuru eta kalitateari dagokionez.

- Neurriak laguntza, baremo eta baldintza ezberdinak ezartzen ditu, laguntza gehien behar duten pertsonak edo baldintzarik okerrenetan daudenak lehenetsiz.
- Neurria progresiboa da eta ibilbide pertsonalizagarri sorta dauka, onuradunek beren egoera pixkanaka hobe dezaten.
- Laguntza mailakatuak ezartzen ditu, baliabide gehiago esleituz lan baldintzak hobeak diren heinean.

► **ZEHARKAKO PROIEKTUA.** Neurriak gazteriaren errealitate sozioekonomikoko hainbat alderdi jasotzen ditu eta horietan batera egiten du lan, gazteriak dituen arazo eta beharren konponbiderik ahalik eta integralena lortzen lagunduz.

*Adibidez: enplegua eta etxebizitza batera lantzen duten proiektuak, edo prestakuntza eta enplegua, edota emantzipazioa, balioak eta aisialdia.*

► **INSTITUZIO ARTEKO PROIEKTUA.** Neurria instituzio ezberdinek koordinatua eta sustatua da, administrazio edo lurralde mailako eskumen ezberdinak dituztenak, eta beren gaitasunak artikulatzen dituzte proiektu integralago bat garatzeko.

► **PROIEKTU BARNERATZAILEA.** Lan munduan aukera gutxien duten pertsonen barneratzea sustatzen duen proiektua da.

► **PROIEKTU ERAGINKORRA.** Kontrastatutako emaitzak bereziki positiboak dituen proiektua da.





- ▶ **PROIEKTU BERRITZAILEA.** Proiektu berritzailea da izaera antzekoa duten proiektuekiko nolabaiteko hobekuntza adierazgarria dakarrena, edo egoera berri bati erantzuna eman, agerian jarri eta konponbideak proposatzen dizkiona.
  
- ▶ **IBILBIDE PERTSONALIZATUA DUEN PROIEKTUA:** Neurriak parte hartzaileentzat ibilbide pertsonalizatuak prestatzea eta horiei jarraipena egitea jasotzen du, politika publikoak pertsona bakoitzari ahalik eta modurik egokienean egokitu dakizkion.
  
- ▶ **PROIEKTUA SAREAN.** Entitateen eta pertsonen sarea erabiltzen du.

## GAZTELABEL DISEINUA

### LABELAREN ADIBIDEA

**PROIEKTUAREN IZENA**  
**PROIEKTUAREN ARDURADUNA**

**EGOKITASUNA**  
PERTINENCIA Y ADECUACIÓN ✓✓✓

**BALDINTZA BERDINTASUNA**  
IGUALDAD DE CONDICIONES ✓✓\*

**GIZARTEA ETA IRAUNKORTASUNA**  
SOCIEDAD Y SOSTENIBILIDAD ✓\*\*

**EMAITZAK**  
RESULTADOS ✓✓\*

**EBALUAKETA ETA HOBEKUNTZA**  
EVALUACIÓN Y MEJORA CONTÍNUA ✓\*\*

 **ESKUALDAGARRIA**  
TRANSFERIBLE

 **SARE LANA**  
EN RED

 **INDARGUNEAK**  
INNOVADOR

### BESTE INDARGUNEAK



FLEXIBLE



PROGRESIVO



INTERINSTITUCIONAL



ITINERARIO PERSONALIZADO



TRANSVERSAL



INCLUSIVO



TRANSFORMADOR



EFFECTIVO

## **NOLA EGIN KONTRASTEAK:**

Kontrasteak guztira 5 faktore eta 24 azpi-faktore edo elementu ditu ebaluatuak izateko, bai eta faktore gehigarri bat ere, bere bitartez proiektuaren edo neurriaren indargune orokorrak balioan jartzeko. GazteLabela eskuratuko badu neurriak balorazio positiboa izan behar du faktore guztietan, eta horretarako beharrezkoa da faktore horietako bakoitzean balorazio positiboa lortzea nahitaezkozat jotako azpi-faktoreetan edo ezarri den gutxieneko azpi-faktore batzuetan.

Kontrastea egitean, faktore horietako bakoitza bere osotasunean baloratu beharra dago, eta bakoitzari dagozkion INDARGUNEAK, AHULEZIAK eta HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK identifikatu behar dira. Gainera, azpi-faktore bakoitza banaka baloratu behar da lau balioen arabeko eskala baten arabera, eta behin azpi-faktore guztiak baloratu ondoren GazteLabela lortzeko maila ebaluatu ahal izango da.

Kontrasteko eragile bakoitzak dokumentu sorta bat jasoko du, neurria edo proiektua ezagutzeko beharrezkoa den informazioa jasotzen dutenak, bai eta GazteLabela kontrastatzeko formulario bat ere, baloratu behar diren faktoreen jarraipena egiteko bere bitartez. Informazio osagarria behar izanez gero EGK-ko teknikari koordinatzaileari eskatu behar zaio, honek dagokion Administrazioari edo entitate arduradunari eska diezaion eta prozesuan parte hartzen duten kontraste eragile guztiei helaraz diezaien.

Kontrastea egiteko ondoko eskema jarraitzea gomendatzen da:

**Dokumentazioa irakurri** galdera funtsezkoak aintzat harturik (ikusi 1. oharra).

**2- Faktore bakoitzaren indargune eta ahulezien aurreiazko kontrastea egin.**

**3- Azpi-faktore bakoitzaren betetzea edo ez betetzea aztertu eta arrazoitu.**

**4- Indarguneak identifikatu eta arrazoitu** (6. faktorea).

**5- Azpi-faktore bakoitzari balorazioa eman eta faktore bakoitzaren balorazio orokorra lortu** (ikusi 2. oharra).

**6- Bakoitzaren indarguneak eta ahuleziak berrikusi eta hobekuntza proposamenak prestatu.**

**1. oharra:** Helarazitako informazioaren azterketa egiten den bitartean kontraste faktoreak gogoan izatea gomendatzen da, bereziki ondorengo erreferentziazko galderak:

Neurriak benetako behar bati erantzuten dio eta era zuzenean egiten du?

Neurriak gazteen eskubideak sustatzen ditu eta diskriminatuak izan daitezen ekiditen du?

Neurria errespetuzkoa da ingurumenarekiko eta gizarte testuinguruaren barruan artikulatzen da?

Neurriak lortzen ote du hobetzea bera abian jartzeko arrazoia izan zen behar egoera?


Neurriak egokitzapen eta hobekuntza mekanismorik badu?

Neurria nabarmentzen da praktika egokiren batengatik bereziki?


**2. oharra:** Balorazio eskala: eskala honek lau lorpen maila ditu faktore eta edo azpi-faktore bakoitzerako. Dagokiona markatu behar da eta laburki arrazoitu.



Bete gabeko eskalaren irudia, lau mailatan mailakatua.




Azpi-faktorea edo faktorea **EZ DA BETETZEN**.



Faktorea edo azpi-faktorea **NEKEZ BETETZEN DA**.



Faktorea edo azpi-faktorea **MODU ONARGARRIAN BETETZEN DA**, baina ez da guztiz betetzen.



Faktorea edo azpi-faktorea **BIKAIN BETETZEN DA**.

### **Bibliografia:**

EUSKALIT. *Modelo de Gestión Avanzada 2015*.

Associació Catalana de Professionals de les Politiques de Joventut. *Bones practiques en l'àmbit de la joventut*. On line: <http://www.joventut.info/bonespractiques/#>

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua. *GAZTEON ERREZETAK gazteontzako enplegu planak sukaldatzeko*.

Organización Iberoamericana de Juventud, Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo, Fondo de Población de las Naciones Unidas, Comisión Económica para América Latina y el Caribe y Organización de las Naciones Unidas para la Educación, la Ciencia y la Cultura. *20 BUENAS PRÁCTICA EN POLÍTICAS PÚBLICAS DE JUVENTUD*.